

# **BIZKAIKO LANDA-EREMUAN TRANTSIZIO ENERGETIKORAKO ESKUALDE-MAILAKO METODOLOGIA BATEN DISEINUA**

*Posted on 30/07/2025 by Naider*

Bizkaiko Foru Aldundiak **landa-eremuan trantsizio energetikorako eskualde-mailako metodologia** diseinatzea bultzatzen du, dimentsio hori eskualdeen plangintza estrategikoan modu egituratuan integartzeko eta Landa Garapenerako Elkarteen (LGE) rola indartzeko.

Lana **ikuspegi parte-hartzaile eta eko-sozialetik** planteatzen da, lurraldearen aniztasunera egokituta, eta aukera ematen du eskualde bakoitzak bere behar eta potentzialak diagnostikatzeko, aukerak identifikatzeko eta bere errealitatearekin lerrokatutako proiektuak definitzeko. Metodologiak testuinguru normatibo eta instituzionalaren analisia, diagnostiko energetiko eta territorialaren eraikuntza eta **autokontsumoa, lehen sektoreko eraginkortasun energetikoa, mugikortasun jasangarria edo bioekonomia** bezalako arloei lotutako ekimenen identifikazioa uztartzen ditu.

Horrez gain, jarduerak lehenesteko tresnak, **gobernantza parte-hartzaileko ereduak** diseinatzeko aukerak eta finantzaketa-iturriak identifikatzeko mekanismoak txertatzen ditu, baita lurraldeko eragileekin kontraste-dinamikak ere, metodologiaren aplikagarritasuna bermatzeko. Prozesu honetan, Aldundiak Naidarren laguntza du; honek **metodologia eta dinamizazio teknikoa** eskaintzen ditu lana egituratzeko eta baliozkotzea errazteko. Eraitza tresna praktikoa eta erreplikagarri bat da, LGEei trantsizio energetikoa beren garapen-estrategietan txertatzeko eta **landa-eremuaren deskarbonizazioan aurrera egiteko ikuspegi justu eta inklusibo batetik** laguntzen diena.

